

## Udal baratzak:

- Udal baratza publikoak jarri herritarren esku.

## Beste batzuk:

- Saiakera egin edota lagundu, herriko ikastetxeetako jangeletan kontsumitzen diren fruitu eta barazkiak, ekologikoak izan daitezten.
- Okendo plaza atzealdeko belardia aprobetxatu landare desberdinak jartzeko eta bide batez, zentzumen desberdinak lantzeko erabil genitzake: bista, usaimena, ukimena...



Hau da ikasturte honetan guztion artean burututako lanaren laburpena.

Eskerrik asko gure iritzia plazaratzeko ematen diguzuen aukeragatik.



# Lasarte-Oria

## Eskolako Agenda 21

2013-2014 IKASTURTEA



## ELIKADURA JASANGARRIA

Lasarte-Oriako Eskolako Agenda 21 programak 5 urte bete ditu. Bertan, herriko Lehen Hezkuntzako 2 ikastetxeak parte hartzen ari gara gure eskolaren eta herriaren kudeaketari buruzko azterketa eginez, hobekuntza helburuak gidari ditugularik. Guztira, 1.281 ikasle gara partaide, gure irakasleak ahaztu gabe.



- LANDABERRI-GARAIKOETXEA LHI Ikastola
- SASOETA-ZUMABURU LH Ikastetxea

Aurreko 4 urtetan landutako gaiak ondokoak izan dira: **ura** 2 ikasturtez eta **biodibertsitatea** eta **aniztasun kulturala** hurrengo bietan. Aurten aldiz, erronka berri baten aurrean aurkitu gara, non aldagai berri baten bitartez, **ELIKADURA JASANGARRIA**, gure herria beste ikuspegi batez aztertzeko aukera paregabea izan dugu. Gure gizartean pil-pilean dagoen gai garrantzitsua dugu: elikagaien biodibertsitatea, elikadura eta bertako produktuen garrantzia, elikadura eta gosea, elikadura eta osasuna..., neurriak hartzera behartuko gaituen gaia izanik.



Mota askotako ekintzak garatu ditugu gure bizimoduan elikadurak duen garrantziaz jabetzeko. Elikadura gai zabala denez, berarekin zerikusia duten alor ezberdinak aztertu dira ikasleen artean eta diagnostiko bat eginez ikusitako akatsei konponbideak jartzen saiatu gara. Hori bai, lehenago gure konpromisoak hartu ditugu. Txosten honen bidez, Udala eta herritarrak oro har informatu nahi zaituztegu eta gure proposamenak udal-ordezkariei helarazi nahi dizkizuegu.

## Zein ondorioetara iritsi gara?

- Janari asko botatzen da eta bestalde, jende asko gosea pasatzen ari da.
- Janaria hobetu aprobetxatuz:
  - Dirua aurreztuko genuke.
  - Hondakin gutxiago sortuko genituzke.
  - Erosketak gutxiagotan egin beharko genituzke eta gainera kotxea gutxiago erabili.
- Premiazko elikagaien erosketak gehienetan supermerkatuan egiten ditugu. Hala ere, herritar gehienak haragia, fruta eta barazkiak denda txikitik erosten ditugu. Esnea berriz, supermerkatuan, oso gutxitan erosten da esne freskoa.
- Beti ez dugu jakiten erosten ditugun jakien jatorria, batez ere supermerkatuetan erosten badugu. Kalitatea fidagarriagoa da ekoizlea ezagutzen badugu, hortik azoketan erostearen garrantzia.
- Bertakoak ez diren jakiak erosten baditugu, gure dirua ere kanpora joango da. Bertakoaz gain, garaian garaikoa ekoiztea eta jatea da garrantzitsua.
- Gaur egun urte guztian zehar edozein jaki kontsumitu ditzakegu, edo kanpotik datozelako edo negutegietan ekoizten direlako.
- Lur sail berdinean urte guztian zehar jaki berdina landatzea ez da ona eta ondorioz ongari kimikoak erabiltzen dira.
- Hemengo jakiak erosiz gero, bertan lan gehiago egongo litzateke eta gutxiago kutsatuko genuke garraioa saihesten delako.



## Proposamenak Udalari



Landutako gaiaren arabera proposamen desberdinak sortu dira ikastetxeen aldetik. Ikasleen foroak izan dira proposamen horiek batu eta lehentasunak markatzeko bidea. Lan horren isla duzue ondoren, non proposamen horiek gaika eta ikasleek emandako garrantziaren arabera multzokatuta ipini ditugu:

### Ekimenak – kanpainak:

- Informazio kanpainak herritar ororentzat. Adibidez, publizitatea eginez herriko aldiakarian, Txintxarrin:
  - Esne makinaren erabilera indartzeko kanpaina.
  - Bertako produktuak kontsumitzearen alde.
  - Oro har ingurumenarekin lotuta dauden gaien alde.

- Denda handiekin hitz egin janaria bota ez dezaten eta beharra dutenei bideratu ahal izateko.


### Denda txikiak eta azokak:

- Herriko denda txikiak indartu, zozketak eta publizitatea eginez, herrian erosi ahal izateko aparkalekuak hobetuz, zergak jaitsiz...
- Lagundu dendariei beraien produktuen berri emateko, jatorria, onurak...

- Bestalde, herrian produktu ekologikoak saltzen dituzten dendak zabaltzeko erraztasunak eman.
- Azoka egun gehiago jarri, adibidez, larunbat goizean. Bertan, baserriarren postuak egon daitezten.
- Azoka bereziak antolatu, munduko beste herrialdeetako jakiak ezagutzeko.

### Baserriak eta baserriarrak:

- Erraztasunak eman baserriarrei:
  - Azoketan leku egokia izan dezaten.
  - Zergak gutxituz edota diru-laguntzak eman... ondorioz beraien produktua merketuko litzateke.
- Baserriarrei bideak zabaldu, azoka edota dendetan kanpoko produktuen aurrean lehentasuna izan dezaten.
- Oro har nekazaritza jarduerak sustatu beharko lirateke, bisitak antolatuz baserrietara, hauek saltzen dituzten produktuen zerrondak eginez eta hauek herritarren esku jarritz...



## Ikasleen arteko foroa

Eta ohikoa den bezala, ikastetxeetan egindako lana elkartzeko asmoz, ikasleonen arteko Foroa antolatu dugu. Ikastetxe guztietako ordezkariak maiatzaren 14ean Manuel Lekuona Kultur Etxean elkartu eta gure lanak bateratu ditugu. Horien artean, **konpromisoak** ere hartu ditugu, eta aurreko urtetakoak ahaztu gabe, beste hauek hartu ditugu:

### Konpromisoak bateratuta

Gure hiriko ingurumena zaindu eta iraunkorra izan dadin, guztion parte hartzea beharrezkoa da; horregatik, konpromiso batzuk hartu ditugu hori betetzeko eta guztion artean honako zerrenda osatu dugu:

1. Produktu ekologikoak gehiago erosiko ditugu eta honen berri gurasoei eman. Dendetan eskatzen baditugu geroz eta gehiago ekarriko dituzte.
2. Modu berean, azokan eta garaian garaiko produktuak saltzen dituzten frutategietan erosten saiatuko gara eta gertukoak badira hobe. Aukera hauetaz etxean hitz egingo dugu.
3. Berdin, herriko esne makinan erosteko aukeraz.
4. Gure jangeletara bazkaria ekartzen duen Ausolagun enpresari garaiko janari gehiago erabiltzea edo ekartzera eskatuko diogu.
5. Gure erosketetan (txutxeak) zer erosten dugun ikusi eta etiketak irakurtzen hasiko gara.
6. Oro har interes gehiago jarriko dugu jaten dugunaren inguruan.
7. Gure landa ingurua hobeto ezagutzen saiatuko gara eta bide batez gehiago errespetatzen (landareak puskatu gabe, animaliak izutu gabe, pasatzen garenean landak ixten...).



- Produktu ekologikoak hobeak, osasuntsuagoak, zapora hobeak, ez dute ingurumena kutsatzen, ez dute osagai kimikorik... Baina nahiz eta osasunerako onak izan, prezio altuagoa dute eta ez dira erosten. Hori dela eta mota hauetako dendak ez dira ugariak. Bestalde, egia da herritarrak geroz eta gehiago kezkatzen garela gure osasunaz eta pixkanaka ekologikorako ohitura hartzen ari garela.
- Janari azkarra edo "fast food" delakoa ez da osasungarria egunero jateko.


- Talde batzuk "Landa eremuko paisaia" aztertu dugu eta ondorioztatu dugu:

- Herriak eta hiriak hazi egin direla eta landa eremua asko galdu dela.
- Baserriak beharrezkoak ditugu barazkiak, esnea, haragia... sortzen dutelako eta produktu hauek kalitate handikoak izaten dira.
- Landa eremuak ingurugiroa sano eta garbi mantentzen du. Guk arnasten dugun airea askoz sanoagoa da baratzean belardiak eta basoak baldin badaude.
- Landa eremuak (baserri, belardi, baso...) ederrago egiten du gure herria. Kalean bizi garenontzat hori ibiltzea denbora pasa oso atsegina da.
- Inork paisaia zainduko ez balu, belardietan larra eta sasia nagusituko lirateke eta azkenik baserriko kultura eta bizimodua desagertuko lirateke.

## Eskolako diagnostikoa


- Jangelako menuak catering enpresa desberdinek prestatzen dituzte baina ez dakigu nolako produktuekin egiten duten lan, nondik ekarritakoak diren...
- Hamaiketakoan sortzen ditugun hondakinen kudeaketarako gela bakoitzean edota jolastokietan kolore ezberdinetako edukiontziak jarri ditugu hondakin mota ezberdinak sailkatzeko.

ASTEAZKENETAN



HAMAIKETAN





## Herri mailako diagnostikoa



Atal honetan elikaduraren inguruan gure herria nola dagoen aztertu dugu, horretarako batez ere inkestak (etxean eta herritarrei) eta kaleko behaketak egin ditugu. Hauek izan dira taldeka burutu ditugun jarduerak:



1. **HH-tik** hasita: kuku-miku jolasaren bidez gure baserrietako barazki eta animaliak ezagutu. Zer da Elikagaien Piramideak?
2. **LH 1. ziklokoek** elikagai ezberdinak identifikatu eta dagokien urte sasoiak kokatu ditugu. Honekin batera, gure elikadura ohiturak aztertu ditugu.
3. **LH 2. ziklokoek** etxean edota kalean galdetegi bat egin dugu jendeak bertan ekoiztutako produktuak kontsumitzeari ematen dion garrantzia neurtzeko eta garai batean zituzten elikatze moduei buruz gehiago jakiteko. Bestalde, barazetik aurrera izeneko lan fitxen bidez elikagaiak lortzeko bide desberdinak aztertu ditugu.
4. **LH 3. ziklokoek** kontsumo ohiturak eta landa eremuko paisaia aztertu ditugu, ea produktuen jatorria ezagutzen dugun, bertako eta garaiko produktuak kontsumitzen al ditugun... jakinez.

Ikasitakoa borobiltzeko, "**Sagarretik Sagarrera**" elikadura jolasarekin aritu gara, askotan ikasle zaharragoak jolasaren gidari izan ditugularik.

**IRTEERA ETA EKINTZEN ARTEAN:** hauek ere adinari egokituak izan dira eta besteak beste...

- Herriko asteazkenetako azoka.
- "Talo tailerra" burutu dugu.
- Auzoko dendak aztertu eta ikusi bertan saltzen diren produktu mota eta jatorriak.
- Denda txiki hauek azalera handiko dendekin alderatu.
- ...

